K107 M24:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/06/11 00:51 Página 1

MUTRIKUKO HERRI-ALDIZKARIA
201 hiz-kopurua - 107. zenbakia

KALAPUTXI

Melissa Mancini

ahots garbi zoragarria

KANTAURIKO ANTXOAREN BERME MARKA
ITSASBEHERAN, DZANGA ENPRESA MUNDURA
IGELTSU ERROTAK MUTRIKUN

FABRIKA ETA ERAKUSKETA



OPARIA
sukaldearekin
laba

logelarekin
koltxoia

akilape
Mijoa Industrialdea z/g MUTRIKU Tfnoa: 943 60 43 34
www.akilape.com
Mota guztietako altzariak eta egur lanak egiten ditugu
ESKATU AURREKONTUA !!

Audi

IFAR AUTO

SEAT

AUTO KONPONKETAK
MARKA GUZTIAK

SKODA AUTO

MEKANIKA OROKORRA
✔ lerrokadurak
✔ gurpilak
✔ olioa
✔ suspentsioak

ELEKTRIZITATEA
injekzioa ✔
diagnosia ✔
aire girotua ✔
argiak ✔
elektronika ✔

Tel. 943 19 12 77 · Tel. eta Faxa 943 19 19 09 · e-mail: ifarauto@terra.es
Mijoa-Ikutzaran poligono industriala, z/g ·20830 MUTRIKU ·Mutriku-Ondarroa errepidea

K107 M24:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/06/11 00:51 Página 3

aurkibidia

Informaziua	4
Zeuk esan	5
Puri-purixan	6
Bi hitzetan	8
Auzoz auzo	10
Lan giruan	12
Karenka	14
Osasuna	16
Bertsuak	17
Kirola	18
Zorion agurrak	20
Argazki zaharrak	21
Agenda	22

Kantauriko antxoaren berme marka.



Igeltsu errotak Mutrikun.

Itsabeheran, dzanga enpresa mundura.

Neskak, plazara!

Argitaratzailea: Karenka komunikazio elkartea
Barrenkale,12 behea - 20830 Mutriku.

Telefonoa: 943 603468 / 635 748 393
e-maila: kalaputxi@topagunea.com
kalaputxi2001@gmail.com
Bloga: kalaputxi.blogspot.com
Laguntzailea: Mutrikuko Udala
Kolaboratzaileak: Iñigo Andonegi, Josu Ituarte
Tirada: 2.200 ale
Lege Gordailua: SS-787/01
ISSN: 1579-4792
Inprimategia: GERTU. Oñati
Banaketa: Kalaputxi

*Kalaputxi*k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Kalaputxik eskerrak eman nahi dizkizue aldizkari hau kaleratzea posible egin duzuen guztioi.

Mutrikuko Udaleko
Kultura eta Euskara Batzordea

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
Kultura Saila
Hizkuntza Politikarako Sailordetza

K107 M24:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/06/11 00:51 Página 4

telefonoak

Medikuak, anbulantziak, botikak

Larrialdiak 943 46 11 11
Anbulatorioa 943 60 43 00
DYA zentrala 943 46 46 22
Mendaroko ospitala 943 03 28 00
Zaintzako botikak:
Otxagabia (Mutriku) 689 58 57 59
Apraiz (Mutriku) 630 05 50 97
Zalduegi (Deba) 669 26 22 01
Burgoa (Deba) 667 33 88 90

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea 943 60 32 44
Udaltzaingoa 943 60 70 48
..... 679 16 25 00
Gizarte Ongizatea 943 19 50 81
Zaharren Egoitza 943 60 38 71
Itsas etxea 943 60 34 00
Turismo bulegoa 943 60 33 78
Bake Epaitegia 943 60 70 49
Alde Zaharra eraberritzeko zerbitzua 943 60 34 18
Kiroldegia 943 60 31 75
Liburutegia 943 60 41 82
Miruaitz Frontoia 688 64 31 80
Ur partzuergoa 902 30 22 22
Zakarrak eta trasteak 943 70 07 99
Anai Arte 943 60 34 10

Irakaskuntza

Goizeko Izarra ikastola 943 60 36 75
San Miguel ikastetxea 943 60 31 95
Mutrikuko Institutua 943 60 36 27
Udal euskaltegia 943 60 30 94
Musika eskola 943 60 37 80
Haur eskola publikoa 943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

Ansola Taxia 635 672 383
Anton Taxia 666 221 999
Xabi Taxia 656 289 026
Pesa autobusak 902 10 12 10
Eusko Trenbideak 902 54 32 10
Loiuko aireportua 905 50 50 05

Bestelakoak

Iberdrola 901 20 20 20
Kofradia 943 60 32 00
Posta zerbitzua 943 60 30 44
Gasolindegia 943 60 32 10

ordutegiak

Autobusak

MUTRIKUTIK → DONOSTIARA

Astegunak	7:00 / 10:00 / 13:30 / 19:30
Zapatuak	10:00 / 16:30
Jai egunak	10:00 / 19:30

DONOSTIATIK → MUTRIKURA

Astegunak	8:00 / 11:30 / 14:30 / 20:30
Zapatuak	11:30 / 19:30
Jai egunak	11:30 / 20:30

MUTRIKUTIK → BILBORA

ZERBITZU BERRIA MAIATZAREN 16tik AURRERA
TXANBOLINGO ERROTONDAKO GELTOKITIK

BERRIA

06:25 / 07:25 / 15:25

BILBOTIK → MUTRIKURA

14:10 / 18:10 / 20:10

MUTRIKUTIK → DEBA - MALLABIA

Astegunetan: 7:15etik 21:15era orduro.
Jai egunetan: 8:15etik 21:15era orduro.

MUTRIKUTIK → ONDARROARA

Astegunetan: 6:55etik 20:55era, orduro.
Jai egunetan: 7:55etik 20:55era orduro.

Trenak

Orduro ateratzen dira adierazitako ordu tartean.

DEBA → DONOSTIA → DEBA

Debatik	**6:44** – 7:44 - ...- **21:44**
Donostiatik	**5:47** – 6:47 - ...- **20:47**
Jai egunetan	**8:44etan lehenengoa.**

DEBA → BILBO → DEBA

Debatik	**6:43** – 7:43 - ...- **20:43**
Bilbotik	**6:00** – 7:00 - ...- **20:00**
Jai egunetan	**8:43etan lehenengoa.**

K107 M24:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/06/11 00:51 Página 5

Neska-laguntzatik facebook-era (edo alderantziz)

Uda badator eta eguzki-izpi eta itsas-ertzeko olatuen magalean ondo pasatzeko aukera bat baino gehiago izango da. Jaiak, parrandak eta gaupasa nonahi eta jende berria ezagutu eta harremanak estutzeko abagunea ere hortxe dago. Baina…. Ez dakit, ez dakit… pertsona berriak ezagutu eta lagun berriak egiteko mobila eta ordenagailua beharko ez ditugun.

Gero eta gehiago dira sare sozialak erabiltzen dituztenak munduko edozein txokotako jendearekin harremanak egiteko. Harreman motak denetarikoak izan daitezke: ekonomikoak, politikoak, sozialak, pertsonalak…. Teknologia berriak horretarako asmatu dira, gizakiaren bizimodua errazteko. Baina bizimodua gehiegi errazten denean, zer? Askotan ez gara alboko bizilagunari egunon esateko gai, herri berean bizi eta solasaldi xume bat izateko gai, ez gara gure familikoekin edo lagunekin elkarrizketa atsegina izateko gai. Ara! Ta gero! Gure intimitate guztiak kontatu eta erakusten dizkiogu Noruegako cyber-lagun horri. Horratx gure "gauzak" ezkutatzeko era txiroa.

Sasoi bateko aitonek ilargiaren eta izarren anparoan, kilometro mordoa egiten zuten neska-laguntzan. Gaueko iluntasunean lotsak tapatu eta neskaren baserri ondoan edo meta ostean suerte pixkatekin jolasaldia egin nahian bat baino gehiago ibiliko zen. Baita intentzio onarekin, etorkizunari begira, neskari etxera txintxo-txintxo lagunduta ere. Baina ibilaldi haietan gauza asko argitzen ziren: gustoko neska emaztegai bihurtu, bideko lagun onak egin, kalabazak jaso…

Harremanak bertatik bertarakoak ziren nahiz eta kilometro mordoa egin erromeritik etxera. Sasoi hartako gazteek ligatze asuntoa lotsa eta pekatu mamuarekin bizitzen zuten baina baita freskotasun eta bat-batekotasun ederrarekin ere. Nik ez diot gaur egun hala ez denik, baina gero ta gehiago ikusten det hurbileko harremana asko galdu dala, gau bateko rollotxoak kenduta.

Terrazako lagun giroa, Atxukalen kontu-esanaldiak… asko eta asko dira mobiletik mezuak bidali edo facebook / twitter'en sartu eta harremanak estutzen dituztenak. Hori ondo dago gure harreman sozialak eta pertsonak gehitzeko bada. Baina kontrakoa lortzen badu, hau da, gure inguru hurbilekoengandik hurruntzen bagaitu, zerbaitek ez du funtzionatzen.

Gure aiton amonek guk ditugun internet baliabideen erdiak izan balituzte ez zuketen horrenbeste abarka urratuko; baina guk, ditugun baliabideen erdia erabiliko bagenu, inguruan duguna gehiago estimatuko genuke.

Tira lagunok! Uda badator…. Eman oporrak mobilari, ordenagailuari, mp3, eta gozatu lagunekin, etxekoekin edo Malen jaietan ezagutuko dezuen azukre koxkorrarekin…

Egin neska-mutil laguntzak baina mobileko argia izan dadila etxerako bidea argitzeko eta ez laguna indioarena egiten harrapatu eta irudi hori munduan zehar zabaltzeko.

Egin parranda ederrak baina ez ordenagailuaren web-cama lagun dezula. Ez ahaztu lagun-lagunak zurekin dantzan eta algaran dabiltzanak direla eta ez Irlandan zuri begira enbidia pasatzen daudenak.

Ez dago esan beharrik uda disfrutatzeko dela. Bera utzi ditzagun gure sare-sozialak eta gainerako enparauak festarako hitzordua jartzeko. Gainontzekoa festa-giroak egingo du eta. A! Oso erradikala bazara, San Juan sua toki ona izango litzateke bizi berri bati hasiera emateko, mobila erretzeko esate baterako. Aio.

Agurtzane Urriolabeitia

gutunak

S.J.N.ri erantzuna: "BIDE PUBLIKOAK"

Santa Elena azpiko nekazalturismoaren inguruko bideari buruz argitaratu zenuen iritziaren inguruan, jakin ezazu:

1.Bide hori ez dela sekula publikoa izan, pribatua baizik, jabe pribatuek bere esku, izerdi eta diruarekin egindakoa, eta inoren laguntzarik gabe mantendutakoa gainera.

2.Lur jabetza pribatuaren izaera honako dokumentu eta elementuek, besteak beste, frogatzen dutela:

a.Jabetzea eskriturek eta Jabetza erregistroak.

b.Mutrikuko Udaleko Udal batzaren 2001eko azaroaren 22ko akordioak, lur publikoen inbentarioaren onarpen espedientearen barruan, bide horren jabetza pribatua espresuki onartzen duena.

c.Mutrikuko Udaleko Hirigintza Batzordearen 2010eko ekainaren 10eko Irizpenak, bide horren jabetza pribatua espresuki aintzasten duena berriro ere.

Dena den informazio guzti hau Mutrikuko udaletxean izanik, bertako aholkulari eta teknikariek eman dakizuke honen berri, agian guk hemen aipatzea baino fidagarriagoa izango zaizulakoan.

3.Arau subsidiarioetan ez dela bide hori publiko moduan agertzen, pribatua baita.

4.Prentsara "zalantzak", "eztabaidak", "txantxullo" eta antzeko terminoak edo "prebarikazio" akusazioak hainbesteko arinkeriaz plazaratu baino, hobe zenuke aldez aurretik behar den moduan informatuko bazina.

Informaziorik gabeko "keja gehiago ez, mesedez".

HAITZALDE

DANTZA-DANTZARI

Maiatzaren 28n "Dantza eguna" izan zen Mutrikun. Bertan, ehunka dantzari aritu ginen jira eta bira, soineko dotore eta koloretsuak astinduz.

Eguna "derrepente hilda" amaitu genuen arren, denok berriro ere prest gaude hurrengo urtean horrelako egun zoragarria pasatzeko.

Gure Ametsa taldeko guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu gurekin izaten duten pazientzia guztiarengatik, behin eta berriz pauso berdinak errepikatzeagatik, beti ere aurpegi ona jarriz.

Jendeari, animatzeko dantzan egitera, gure dantzak gure kulturaren eta izaeraren zati bat direlako.

Dantza taldeko arduradunei esan nahi diegu badakigula lan handia dela hori guztia aurrera ateratzea. Badakigu umeen taldeek, Gure Ametsa taldeak, eta gainetik ehunka afizionatuen taldeak zenbat eta zenbat denbora eta entsaio behar dute.

Horregatik, hain uzen ere, animoak zuentzat, eta indarrak atera hurrengo urterako, zuek hor bazaudete ehunka dantzari ere bertan izango garelako.

Eskerrik asko GURE AMETSA dantza taldeari!

Frontoiko afizionatu taldea

K107 M24:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/06/11 00:51 Página 6

KANTAURIKO ANTXOAREN BERME MARKA

Ibilbide luzerik ez badu ere, duela hiru bat urte jarri zuten abian Euskal Kostaldeko Kontserbagile Artisauen Elkartekoek kalitate zigiluaren kontua. Bost enpresa eta bost herri: Ondarroako Agirreoa Kontserbak, Markinako Dentici Kontserbak, Zumaiako Nardin Kontserbak, Mutrikuko Calogero Billante Kontserbak eta Berritxuko Etxebarria Idoeta Kontserbak. Horiexek dira Elkarte horretako partaideak.

Aukera paregabea aprobetxatuz, Mutrikuko Calogero Billante enpresara jo dugu guzti horretaz jakin asmoz. Lanari tarte bat egin eta esku zabalik hartu gaitu Carlosek, bertako nagusiak. Historia piskat eginez, 1890 urtean zabaldu zuen enpresa Calogero Billante jaunak; esan daiteke, beraz, Gipuzkoako zaharrenetakoa dela. Arrain gazituaren sistema Italian ere erabiltzen zen arren, hango kontserbagileak konturatu ziren Kantauriko antxoa zela aproposena beren lanerako, kalitate handiena eskaintzen zuelako, eta halaxe abiatu ziren Euskal Herrira.

Kantauriko Antxoaren Berme Markarekin ekin diozue...

Ikusten dugu merkatuan konpetentzia handia dagoela, kanpoko produktu asko dilugula inguruan. Guk gure produktuei dagokien garantzia eman nahi diegu. Finean, zera esan nahi dugu kalenatzen dugun hori berme guztiak dituen produktua dela. Azkenean egiten duzuna da kalitatea bermatzeko marka edo zigilua jarri. Kanpoko erakunde batek kontrolatua eta ziurtatua. Merkatuan dagoen hegaluze guztia ez da berdina, antxoa ere ez... Bestalde, lehengaiaren kalitatea ziurtatzeaz gain, produktu horren lanketa edo prozesua ere ziurtatuta dago, hementxe eta modu tradizionalean prestatutakoak direlako.

Kantauriko Antxoaren Berme Markaren ezaugarriak...

Udaberriko antxoarekin eta arrantza tresna tradizionalekin harrapatutakoa da. Ondorengo prozesua ere modu tradizionalean eramaten da aurrera, eta, kontrol eta kata desberdinak egin ondoren, horretarako jarritako adituek esango dute araudian zehaztutako parametro guztiak betetzen dituen Marka zigilua jartzeko. Aurten jarri da martxan antxoaren kontua urte batzuetan antxoarik izan ez dugulako. Orduan hegaluzearekin hasi ginen, eta horretan ere jarraitzen dugu.

Mundu globalizazioak ere izan du eragina kon-tserbaren arloan...

Egun, Argentinatik antxoa garbituta ekarri daiteke. Lehen lagun talde batek egiten zuen lana makinak egiten du, eta kanpoan gainera; beraz, eskutan hori gutxiago. Hemen ia ez da barrilik egiten, handik datorrena, garbituta dator. Zuk egin beharreko bakarra latetan sartzea da. Hegaluzearekin ere antzekoa gertatzen da, Galiziatik ekartzen dira hegaluze solomoak garbituta, eta hemen sartzen dugu latetan. Guk ere egiten ditugu horietakoak, baina hemengo hegaluzea erosten dugunean, hemen egiten dugu prozesu osoa. Jakin badakigu kompetentzia basatia dugula, eta zerbait berezia eskaini behar dugu. Guk hala pentsatu amen, gero, jendearen onerritzia jaso behar duzu. Modu honetako produktuak, jakina, prezio handiagoa du eta, krisi garai

K107 M24:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/06/11 00:51 Página 7

Ekintza honekin gure Kantauri itsasoko antxoa eta hegaluzeari duten balorea eta garrantzia eman nahi diegu.

hauetan zaila da prezioekin konpetitzea eta aurrera egitea... Baina horretan gabiltza buru belarri. Bestalde, ezin da esan Berme Markarik ez duen produktua Markakoa baino txarragoa denik, zeren izango da hemengo antxoa erosi duenik ere Elkartean egon ez arren... Guk esaten dugun bakarra da saltzen dugun horrek kalitate badiritza guzti-guztiak betetzen dituela. Era berean, konpromezua hartzen dugu hemengo arrainarekin gehiago lan egiteko kanpokoarekin baino, gure hau indartzeko.

Kalitatearen aurrean prezioak agintzen du...
Oso sasoi gogorrak dira eta prezioak dira agintzen dutenak: jendeak prezioari begiratzen dio, eta neurri batean normala da gure produktuen eta beste produktuen artean egon daitekeen aldea. Gure merkatua batez ere Espainia da, ostalaritza eta janaridendak. Ez dugu merkatalgune handietara saltzen prezioekin jokatu behar duzulako eta ezin dugulako horiek manipulatzen dituzten prezioekin lan egin. Denda txiki bereziak *delicatessen* eta antzekoak eta tabernak eta jatetxeak dira gure bezeroak. Konpetentzia basati horren aurrean, guri kalitatearekin konpetitzea gelditzen zaigu. Askotan, animoak ere huts egiten dizu ikusten duzunean hainbeste inzur eta trampa, baina nola edo hala aurrera egin beharrean zaude, nahiz eta pentsatu zure kolkorako tontoarena egiten ari zarela.

Helburuen artean duen balorea ematea...
Gauza onak egiteko eskatzen digute, baina gero erosteko orduan produktu merkeetara jotzen du jendeak, horrela da, eta ez dago bueltarik. Gutxiengo bati ez zaio axolako gutxiago kontsumitzea, baina kalitatezkoa. Gustu guztietakoak gaude.

Eta aurrera begira...
Elkarteak aurten bete ditu hiru urte, eta beste hiru urtetarako sinatu dugu. Kanpainek markatuko digute dena, zoriaren menpe gaude. Antxoa sasoia ondo badoa, ona izango da guretzat ere, eta hegaluzearena ere ona izatea komeni. Kanpainak oparoak izanda hemengo arrainarekin mugitu gintezke, eta era berean bezero guztiak pozik eduki.

Zorterik onena opa diogu eta lerro hauetatik jendea animatu gure produktuak kontsumitzera, merezi du eta.

Calogero eskabetxe fabrikako langileak 1916 urtean.

PAGOAGA S.A.
iturgintza - berogintza - gasa
igeltsaritza - aroztegia
Tel.: 943 74 02 79 - 943 74 05 12
Faxa: 943 74 35 65 / e-mail: pagoagaeuskalnet.net
San Antolin, 13 - 20870 ELGOIBAR

eraldiria afariak, bazkariak, bataiak,
egunerako menua
SAN JUAN
MENDIBIL

K107 M24:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/06/11 00:51 Página 8



MUTRIKUAR GUZTIENTZAT ETXEBIZITZA BANA

Badoaz aurrera Madalenako etxebizitzetan bizitzera joateko tramiteak. Alokairu sozialeko 72 etxebizitza zozketatzea zen orain tokatzen zena, eta halaxe egin zuten. Miruaitzen bildu ziren herritar zein inguruko. Izan ere, Madalenako promozioan herritarrek ezezik, Mendaro, Deba eta Ondarroakoak ere parte dira. Zozketa hasi aurretik, herritarrentzatko albiste ona: zozketan lehentasuna dutenez, alokairurako zeuden 45 pertsonei egokitu zitzaien etxebizitza baterako aukera. Gainontzekoak, zozketatu egin ziren. Egokitutako hiru etxebizitzak ez dira esleituko sinaduraren ordura arte, behar bereziren bat dutenei eskaera egiteko aukera emateko.

FOSILEN BUELTAN ETA BUELTA FOSILETARA

Ingurumenaren Nazioarteko Eguna dela-eta Euskal kostaldeko Geoparkearen arduradunek umeentzako tailerrak antolatu zituzten Behe-ko Plazan. Herrian bertan dagoen altxo bat hurbiletik ezagutzeko aukera eman zieten gazteenei: ukitu, aztertu, jolastu… eta bide batez, fosilak eatzeko prozesua ulertzeko modua ere eskaini zieten. Bide batez geoparkeari buruzko infiormazioa ere zabladu zuten. Geoparkearen barruan, Mutriku-Deba-Zumaia hartzen dituzen flysch-a eta Arnoko karst-a sartzen direla gogoratu beharra dago. Geoparkea proiektuaren baitan antolatzen diren ekimen guztiak ondoko webgunean kontsulta daitezke: www.geoparkea.com. Ekainean, gainera, asteburu denetan, Nautilus Ikasgune Geologikoa zabalik egongo da 10:00etatik 12:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

KOMIKIXA

Josu Ituarte "Pitxame"ren eskutik



K107 M24:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/06/11 00:51 Página 9

ELGETAKO MUTRIKUARRA GELDIEZIN DABIL

Mendi lasterketetara bueltatu denetik, Elgetan jaio, baina Mutirkun bizi den Oihana Kortazar garaipenak batzen ari da. Ama izan behar zelako urte eta erdiko geldialdiaren ondoren, lasterketetara itzultzea ametsgaiztoa izan da bere aurkarientzat. Azken garaipena Zegama-Aizkorri maratoikoa izan zen. Bertan bere umea eskuan zuela sartu zen helmugara (04.42.28); oso nekatuta, baina pozik. Aurretik Pagoetakoa (01.12.01, errekor berria) eta Cara Amoneko lasterketak ere irabazi zituen. Lasterketekin hasi eta berehala beste hiru ere poltsikoratu zituen. Horietako baten errekor berria ezarri zuen. Hau gutxi balitz, ekainak 12an, Valmalenco-Valposchiavo X. Skyrace lasterketan (31 Km-tako distantzia, 1850 m-ko desnibel + eta 1800 m-ko desnibel -) Europako Txapela bereganatu du 3.18.46 denborarekin. Sailkapen orokorrean, 436 partehartzailetatik 51garren sartu zen Oihana.
Ez da makala neska honen martxa!
Zorionak!
Informazio gehiago:
http://www.internetional-skyrace.org

ERROMERIA HERRIAN NABARITU DA AURTEN ERE

100 herritar inguru euskal-jantzi dotore bezain koloretsuekin kalerik kale dantzan. Oinarrian hori izaten da euskal erromeriaren gorputza. Arima, ordea, hori baino gehiago da. Eta horrela erakusten dute urtea joan eta urtea etorri bertan parte hartzen duten gizon-emakumeek. Egun guztiko jaia egin zuten eta haien dantza eta umorea herri guztian eta herritar guztiengana zabaldu zen.

FILM LABURREN LEHIAN, 14 LAN

Bukaerara iristen ari da Mutriku I. Film laburren lehiaketa, eta parte-hartzeari begiratuta arrakasta izan dela esan daiteke. Izan ere, 14 lan aurkeztu dituzte herritarrek. “Denetariko istoriak ekarri dituzte. Sormena badela soberan erakutsi dute, eta hura lanean jartzeko nahia ere bai. Oso pozik gaude jendearen erantzunarekin”, aitatu dute antolatzaileek. Orain irabazlea jakitea bakarrik falta da, eta hori ekainaren amaieran jakin ahal izango da.

SBB-K KOPA EKARRI DU HERRIRA

Kopako irabazleak izan dira SBB Mutrikuarrak. Lurraldeko lehen mailako taldeak partida zaila zeukan: aurrean, iazko kopako txapeldun Texas Lasartearra zeukan. Kopa jokoan, gogor aritu ziren bi taldeak. Mutrikuarrek lehen zatian, partida euren esku izan zuten arren, 1-2 (Mauriren gola) galtzen joan ziren aldageletara. Ia bigarren zatiaren amaieran, Apatxek berdinketa lortu zuen, luzapena bultzatuz. Azken txanpan Apatxek eta Bensan kapitainak aurkarien atea zulatu eta kopa eurenganatzea lortu zuten.

K107 M24:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/06/11 00:51 Página 10

IGELTSU ERROTAK MUTRIKUN

Gure aitona-amonei entzuna geneukan igeltsu meategi bat zegoela Madalena auzoan, eta nola jolasten zuten hango meazuloetan goialdetik sartu eta ia elizara iristerainoko tartean. Babes ofizialeko etxeak egiteko lurra mugitzen hasi zirenean, meazuloetako bat geratu zen agerian. Ur asko omen zegoen bere zoruan, eta ez ei zen inor ausartu barnera sartzen.
Javi Castrok —Kimikan Lizentziadun eta Aranzadiren Etnografia departamenduan afizioz diharduen Deban bizi den errenteriarrak— urrats bat gehiago eman du meategi horren inguruan. Pikua baserriaren aurrean igeltsu errota oinarri duen ornamentazio-iturria eraikita ikusi, eta haren nondik norakoak galdetu eta dokumentazio lan bat egin ondoren, Mutrikuko Madalena eta Barrenengoa erroten historiari buruzko datu batzuk argitaratu ditu.



Igeltsu errota, *Javi Castrok* marraztua.

Madalena auzoko etxebizitzak egiterakoan, 2008ko urtearen bukaera aldera, kontutan hartu ez ziren harri handi batzuk aurkitu zituzten, eta Madalena etxearen inguruan utzi euren funtzioa zein zen asmatu ezinik. Harriekin batera igeltsu errota baten arrastoak ere bai. Inor ez zen jabetu haien balio etnologikoaz, nahiz eta 1997tik jakin inguru horretan arrasto arkeologikoak egon zitezkeela.
Eraikuntzako arduradun batek erabaki zuen harri horiek hartu eta Pikua baserriko Jose Luis Elorzari oparitzea nahi zuen eran erabili zitzan. Harriekin batera zeuden egurrak erre egin zituzten, eta burdinak txatartegira eraman. Jose Luis jaunak harri horiek bereziak zirela susmatu, eta ornamentazio-iturri bat eraiki du baserriaren aurrean haitz handi bat eta beste elementu etnografiko batzuekin batera: zerri-askak, alper-harriak eta lixiba-harri bat gain gainean. Eskertzekoa da Pikuaren jarrera eta hartutako erabakia gure historiaren zatitxo bat

K107 M24:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/06/11 00:51 Página 11

denon bistara jarri baitu. Egun, harriak apur bat altxatuak daude, baina uste da lurraren altueran egongo zirela.

Errota-harriak inguruan oso ugaria den kareharriz eginak daude. Egiturak 2,80 metroko diametroa du eta erdian 0,76 metroko zuloa. Metro erdi altuko hamar harrik osatzen dute 8,70 metroko egituraren zirkunferentzia. Gainaldean, harriek 17 zentimetroko beheragunea dute errotarriarentzat pista eratuz. Nahiz eta pentsatu igeltsua zapaltzeko harrizko gurpil gehiago izango zirela inguruan, erdia besterik ez da gelditu. Kareharrizkoa eta kono-enbor formakoa da, 1,26 metroko diametroa eta 30 zentimetroko lodierarekin, egitura lotzeko zulo karratu bat erdian duela. Madalena auzoan errekarik ez egoteak eta ur-biderik ere ez aurkitzeak pentsarazten du animaliek mugituko zutela errotarria.

Pikua baserrian igeltsu errotaren aztarnak.

Mutrikuko igeltsu meategien aztarna historikoek 1771 urtera eramaten gaituzte, eta zehatzago XIX. mendearen erdialdera. Nahiz eta hamaseigarren mendean igeltsuaren erabilera dokumentatuta egon, mende horretan iristsi ziren erabileraren goren aldira, garrantzi handia izanik orduko ekonomian, asko erabiltzen baitzen eraikuntza berrietan zein berrikuntzetan igeltsu hautsa. Prozesua —arabiarrengandik ikasia— artisau erara egiten zen: meategietatik —aire libreko edo galerietakoa— igeltsu harriak atera, zatitu eta labeetan sartu 140°tara, eta egosi ondoren, mailuez txikitu eta errotarrira eraman; ondoren, errotarritik ateratako hautsa iragazi, eta pasatzen ez ziren zatiak berriro errotara jaurti dena hauts bihurtu arte. Lortutako igeltsu hautsa 30 kiloko zakuetan saltzen zen. 10.000kg igeltsu egosteko hamar edo hamabi bat ordu behar izaten ziren. Zailena harriak labean kokatzea zen, denak maila berdintsuan egos zitezen. Egosi ondoren, hamar bat egunean estaltzen zen labea mantsoki hoztu zitezen harriek kalitate ona lortzeko.

Dokumentu historikoetan igeltsu meategi gehiago ere bazirela ikusten da, eta baita urez mugitutako Barrenengoa bigarren igeltsu errota ere, Mijoa bailararen bukaeran Saturrarango hondartzatik hurbil. Errota hori 1509an aipatzen da lehen aldiz, eta beranduago 1551n; pentsatzekoa da garai hartan garia edo artoa ehotzeko ibiliko zela, eta XIX. mendean bihurtuko zutela igeltsua birrintzeko. Ateratako produkzioa ez zen txantxetakoa; izan ere, dokumentu batean agertzen denez, 12 hilabeteko epean 10.000 anega atera behar zuten meategi batetik: 555 m3. Bada 1843ko beste dokumentu bat, non dioen behartuta zeudela parrokia berriaren eraikuntzarako behar zen igeltsu guztia bertaratzera; gainera, oso kalitate onekoa izan behar zuen: oso garbia, egosia eta ondo iragazia. Kobrezko bi erreal ordaintzen zuten anegako. Baina beste kondizioetako bat zen jakitun batek ikuskatu behar zuela aurrez igeltsua harri egoeran zegoenean.

Zakutan igeltsu hautsa ez ezik, meategitik ateratako harria ere saltzen zen. Meategitik Mutrikuko kaira eramaten zuten, ontziratu eta leku ezberdinetara garraiatzeko.

ileapaindegia
Sabanika kalea, 1
Mutriku
Tel: 943 603 945
Hondartza kalea, 13
Deba
Tel: 943 19 27 00
berritu zure ideiak!

ITSASBEHERAN, DZANGA ENPRESA MUNDURA

Krisia dela eta, ez da unerik aproposena itsasbeheran uretara dzanga egiteko. Hortxe aurkitu dugu, ordea, Nagore Tena mutrikuarra (1978-04-16) itsaskirriaren erdian, ilusioak eta nahiak bultzada emanda. Ilusioz eta erronkaz beteriko proiektua martxan jartzea lortu du, hain zuzen ere, Yan Arte Designing izenarekin. Eguneroko beharrek ahalbidetu zuten ideia eta proiektu hau martxan jartzea. Ibilbide nekeza izanik ere, oztopoak oztopo, bere ametsa egia bihurtu da.

Zer da Yan Arte?

Neure behar baten ondorioz sortu eta aurrera eraman dudan proiektua. Lanpostua utzi eta dzanga egin nuen ilusioz beterik proiektu hau martxan jartzeko asmoz. Orain dela urte batzuk, Urretxun nenbilen lanean eta eguneroko bazkaria eramaten nuen etxetik lanera, ohikoa den bezala etxeko tupper batean. Ez nuen batere gogoko eta ez zitzaidan erosoa egiten modu hartan bazkaltzea. Plater edo ontzi dotorean edo atseginean jan nahi nuen, eta zera galdetu nion neure buruari: "Zergatik ez ote dago plater itxurako tupperrik?". Idea sortu eta martxan jarri nintzen.

Nola bideratu zenuen idea hori?

Lehendabizi, Debegesara jo nuen. Bertan, nire proiektua aztertu eta ingenieroekin harremanetan jarri ninduten, buruan bueltaka neukan ideia diseinu berri bihurtzeko asmoz. Horrez gain, proiektua merkaturatzeko beharrezkoa da ideia hori diseinu komunitarioaren bidez babestea.

Nork gidatu zintuen?

Dekoratzaile ikasketak egin ondoren, lanbide horretan egin nahi nuen lan, eta BBK-ak lagundurik praktikak egiteko aukera zegoela jakin nuen. Bertara zuzendu eta praktikak egin aurretik ikastaro bat egin behar nuela adierazi zidaten. "Marketing y Negociación comercial" izeneko ikastaroa aukeratu nuen, beti izan baitut marketinari buruzko interesa. Oso ikastaro aberasgarria izan zen, eta bertan asko ikasi nuen. Harrez gero, irakaslearekin harremanetan jarraitu nuen. Beraz, idea sortu zitzaidanean, irakasle hari komentatu nion, eta berak gidatu ninduen.

Hurrengo urratsa...

Hurrengo urratsa fabrikazioan zentratzea izan zen: paperean neukan diseinua produktu bihurtzea. Markinako Laboralarekin jarri nintzen kontaktuan, hori ere Debegesaren bitartez. Proiektu berriak aurrera eramateko baliabideak eskaintzen dituzte. LEABAI enpresarekin jarri ninduten harremanetan, plastikoarekin lan egiten duen enpresa da. Prozesu luzea izan da: moldeak bertan egin, materiala aukeratu...

Eta, nondik dator Yan Arte izena?

Beno, ez pentsa bat-bateko erabakia izan zenik. Ondarroako disenatzaile baten laguntzaz sortu nuen logoa eta enpresaren izena. "Yan", jan hitzetik

aparra
Erdiko kalea, 29
Tel.: 943 60 45 94
Jantziak eta pitxiak
Barrenkalea, 2
Tel.: 943 60 47 43
KRESALA
Gazte - helduentzako moda, udaberriko eskaintza prest daukagu!

JARRI-TOKI
Jatetxea
- Eguneko menua eta karta
- Familia giroko bazkariak
- Enpresa bazkariak
- Ezkontza, bataio, Jaunartze...
Tel. 943 60 32 39 MUTRIKU

K107 M24:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/06/11 00:51 Página 13

dator, bizkaieraz horrela ahoskatzen da-eta, Arte hitzarekin, jateko artea, dotorezia aipatu nahi genuen. Logoaren diseinuko "Y" hizkiak aurpegia eta ahoa irudikatzen ditu.

Prozesu luze horretan, zein oztopo aurkitu dituzu?

Martxan jarri nuen guztia berriro planteatu beharrean ere aurkitu nintzen. Esan dudan bezala, prozesu luzea izan da, eta ideia aurrera eramateko gustuko ez nituen material, hornitzaile eta hainbat gauza baztertu behar izan ditut. Azkenean, ardura osoa neure esku hartu, eta nik neuk egin nituen egiteko guztiak. Ibilbide horretan, asko ikasi dut. Proiektuan parte hartu duten guztiekin harreman ona izaten saiatu naiz, baina hornitzaile batzuekin pare bat hitz izan ditut, seriotasun gutxi erakutsi baitute.
Horrez gain, emakume izate hutsagatik eta proiektuan neu bakarrik egoteagatik ere, baztertua sentitu naizela esan dezaket. Baina argi dago eta ikasi ere egin dut norberak egin behar duela aurrera horrela ez sentitzeko.

Idea horrek kostu bat izan du, ezta?

Proiektua gauzatu aurretik ez dut inolako diru laguntzarik jaso, familiaren laguntzari esker egin diot aurre. Behin proiektua gauzatu ondoren, ordea, ikastaro bat egiten ari nintzela jakin nuen udaletxean galdetuz gero badaudela nolabaiteko laguntzak. Horretarako, zure ideia edo proiektua aurkeztu eta epaimahai baten erabakiaren ondoren diru laguntza jasotzeko aukera izan dezakezu.

Eta badakigu saritua izan zarela.

Bai, egia da. Debegesak urtero antolatzen ditu "Ekintzaileen egunak"; aurten ere maiatzaren 26an ospatu da. Iazko urtean nire proiektua aurkeztu nuen, eta saritua izan nintzen. Izugarrizko poza eta indarra eman zidan nire ideiekin aurrera jarraitzeko.

Zein da orain zure helburua?

Gauza bakoitzak bere denbora behar duela konturatu naiz, eta lasai hartu behar direla. Nire nahia proiektu honekin jarraitzea da orain momentuan, interneten erabilera aprobetxatuz. Nire asmoa jendearengana heltzea da, ditudan produktuak erakutsiz. Hemen naukazue:http://www.yanarte.com

Zorionak Nagore egin duzun lan guztiagatik eta zorte on!

ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

K107 M24:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/06/11 00:51 Página 14

MELISSA MANCINI
ahots garbi zoragarria

Elizan abesten entzuten dutenak txundituta gelditzen dira: aingeru hura nor ote den pentsatuz, eta gure kalaputxia bisitan joan zaio bere berri jakin nahian. Melissa Anaheimen jaio zen, Californian, Disneyren parkerik zaharrena dagoen hirian. Gurasoak Rhode Islanden bizi dira. Ez da urtero joaten, eta aurten joateko desiatzen dago. Uztailean joango dira alaba eta biak. Aitor, senarra, seguru asko, geroago joango da, oporrak hartzen dituenean. Urteak daramatza hango lagunak ikusi gabe, eta joateko irrikitan dago, aurten, gainera, institutuko ikaskideek sekulako festa antolatu dute ikasketak bukatu zituztela 25 urte direlako. Anaia ere hantxe dauka Californian, San Francisco inguruan; ez dute luzaroan elkar ikusi, baina aurtengo udan Mutrikura etortzekoa da. Anaia ikusteko desiatzen dago Melissa.

Institutua aipatu diguzu, zer ikasi zenuen ondoren?

Beka bat lortu nuen, eta Rhode Island College-era joan nintzen Kantu ikasketak egitera. Hantxe hasi nintzen ahotsa lantzen Metropolitan Operako ikaslea zen irakasle bikain batekin. 18 urte nituen, opera-abeslari izan nahi nuela uste nuen, baina oso gaztea nintzen artean, eta beste aukera batzuk ere gustatzen zitzaizkidan. Nirekin guztiz ilusionatuta zegoen irakaslea —oso ahots fina nuela esaten zidan, gutxitan entzuten den modukoa—, eta barruan neukan guztia atera nahi izan zidan. Berak ni opera-abeslaria izatea nahi zuen, ez zidan beste aukerarik eman nahi, eta ez zuen nik beste biderik probatzerik ere nahi. Nik, ordea, Antzerki Musikala eta beste bide batzuk ere pro-

K107 M24:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/06/11 00:51 Página 15

batu nahi nituen. Baina berak ez zuen horrelakorik entzun ere egin nahi, eta zeharo haserretu zen nirekin. "Ahotsa hondatu besterik ez duzu egingo" esaten zidan, "Ez daukazu beste biderik: hauxe edo batere ez..." Nik Oklahoma izeneko musikalean parte hartzeko proba batera aurkeztu nahi nuen neure burua, probatu behintzat egin nahi nuen; gainera, bertako zuzendariaren ustez, ahots aproposa neukan, eta ilusioz beteta nengoen. Baina irakasleari kontatu nionean, sutan jarri, sekulakoak esan eta alde egin zuen. Nik 19 urte baino ez nituen, eta aproba egin besterik ez nuen nahi, baina ez zidan utzi. Handik aurrera, gero eta okerrago sentitzen nintzen: triste eta gogorik gabe. Bihotz onekoa zen, baina nire bitartez lortu nahi izan zuen berak bere kabuz burutu ezin izan zuen ametsa: bere ametsa, ez nirea. Eta, azkenean, dena utzi nuen bertan behera, ez nituen ikasketak amaitu, eta urtebete baino gehiago pasatu nuen abestu ere egin ezinda, ezertarako gogorik ez nuela.

Nola atera zinen zulo hartatik?
Kantu ikasketak utzi eta beste karreraren bat egin behar nuela erabaki nuen, beste unibertsitate batean hasi berriro. Baina nondik hasi? Beti gustatu izan zait hizkuntza eta literatura lantzea, eta horrexetan hasi nintzen. Ez neukan plan garbirik, baina Komunikazioa izeneko ikasgaia ematen zigun irakasleak aparteko abilidadea neukala esan zidan: irakasle izateko eta ikasleak neureganatzeko abilidadea; alegia, jendearekin komunikatzeko dohain bat neukala. Bere ustez, irakaskuntzarako egina nintzen. Eta halaxe egin nintzen irakasle, Lehenengo eta Bigarren Hezkuntzako irakasle. Gogoz hartu nituen ikasketak eta sekulako notak atera nituen. Gero, praktikak ikasle bereziekin eta arazoz betetako gazteekin egin nituen sei hilabetez, eta oso ondo moldatu nintzen: errespetuz tratatua izatea lortu nuen, eta kasu egiten zidaten. Poesia eta literaturaz interesa zitezen lortu nuen! Oso lan ona egin nuela esan zidan tutoreak. Ama harrituta neukan. Egia esan, neure gustuko lanbidea aurkitu nuen, eta oso pozik nengoen.

Noiz ekin zenion berriro abesteari?
Txikitatik hasi nintzen elizako koruan abesten, 9 urte inguru nituela. Nagusiekin abesten nuen. Izugarri gustatzen zitzaidan musika sakratua, beno, eta musika mota guztiak! 13 urterekin ezkontzetan abesten hasi nintzen, eta jendeak ezagutu egiten ninduen. Gero, beka utzi nuenean, dirua behar nuen unibertsitatera itzultzeko, eta mezatan, ezkontzetan, elizkizunetan eta horrelakoetan abesten hasi nintzen diru apur bat ateratzeko. Jendeak abesteko eskatzen zidan, eta horrelaxe hasi nuen negozio txiki bat. Gero, 94an amaitu nituen unibertsitate ikasketak, eta lan bila hasi nintzen.

Eta pilotari gaztea agertu zen...
Oraindik ikasle nintzela, Seven-Eleven izeneko denda batean lan egiten nuen asteburuetan, eta hantxe agertu zen Aitor frontoitik irten ondoren, etxera bidean zihoala, freskagarriren bat erostera. Eta gero eta sarriago agertzen hasi zen... eta, halako batean, izena ikastea ere lortu nuen —What, Arthur? Not, ei, ai, ti, ou, ar: Aitor!— (Barre egiten du gogoratuta). Nik artean ez nekien Euskal Herria zenik ere. Kontua da auzo berean bizi ginela aspalditik, etxe batzuk beherago, baina ez genuela elkar ezagutu dendan sartu zen arte. Mari Sol eta Pedro (Aitorren gurasoak) ere bertan egon ziren, baina guk ez genuen artean elkar ezagutzen; izan ere, Ameriketan jendeak ez du hemen bezalako hartu-emanik izaten auzokoekin.

Bi munduren artean bizi gara: hemengoa eta hangoa.

Noiz etorri zinen hona lehenengo aldiz?
1995eko abenduan hilabete eta erdi pasatzera etorri ginen. Oso gustura ibili nintzen hemen, izugarri gustatu zitzaidan. Nik, orduan, gaztelerako irakasle izateko titulua ateratzea erabaki nuen, eta bakar-bakarrik itzuli nintzen Mutrikura, Aitor han pilotan jokatzen lagata. Hiru hilabete pasatu nituen hemen, Aitorren gurasoen etxean, Donostiara atzera-aurrera egunero, titulua atera arte. Jende asko ezagutu nuen, eta lagun asko egin nituen hemen. Erabaki ona izan zen, nire ustez. Eta horretxi esker lortu nituen hiru laneskaintza Ameriketan eskolak emateko. 7 urte egin nituen Little Compton izeneko hiri txiki batean klaseak ematen. New Porten bizi ginen, baina bertara bizitzera joatea erabaki genuen: Little Comptonera. Leku zoragarria zen: lasaia, ederra, behi eta animaliez inguratuta, oilagorrak ere bazeuden! Hantxe bizi ginela jaio zen Melisa gure alaba 2005ean (2001ean ezkondu ginen Mutrikun). Baina, gero, diru arazoak zituztela-eta, gaztelerazko eskolak kentzea erabaki zuten eskola hartan, eta lanik gabe gelditu nintzen.

Eta, orduan, Mutrikura etorri zineten...
Hasieran gogorra izan bazen ere (ume txiki batekineta), orain oso gustura nago hemen: hiru hizkuntza hitz egiten dituen alaba daukagu, neuri gehien gustatzen zaidan lana egiten dut (ingelesa irakastea) eta, gainera, parrokiako koruan abesten dut.

Koruan bakarrik ez, ezta?
Bai, *Melissa and the Jacks* izeneko talde bat osatu dugu. Iñaki Belaustegi "Moxka"k bateria jotzen du, Zumaiako lagun batek, gitarra, eta gero teklista eta baxua bilatu genituen. Azkenik, beste abeslari bat ere batu zaigu, 6 lagun gara taldean. Maiatzean, Bergaran eta Zumaian eman ditugu kontzertuak.

Gizonezkoen ileapaindegia
IMOTZ
Erdikokale, 34 - behea MUTRIKU Tel.: 943 60 41 62

Joseba Iñaki Eleizgarai
masajista eta osteopatia
Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku

K107 M24:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/06/11 00:51 Página 16

ERREFLEXOTERAPIA, OIN ETA ARIMA BILUZTUZ

Maiatzaren 9an hasi eta ekainaren 27an bukatuko dute erreflexoteraia ikastaroa Galdonan. DEBEMEN eta ITSASMENDIKOI elkarteen bitartez antolaturiko ikastaroa dugu hori, hemeretzi bat lagun ari dira bertan. Hitz sakonekin eta solasean ematen diote hasiera saioari, bukatu, berriz, usain goxodun esentzia, oin biluztu eta algara artean egiten dute. Hori guztia, Pablo Aragon gidari edo irakaslearen begiradapean.

Zer da erreflexoterapia?

Oinek asko esaten dute norberari buruz, eta, horiek erakustean, pertsona baten izatea ikus dezakegu neurri handi batean. Egia da oinak biluztea asko kostatzen zaigula eta lotsa sentitzen dugula. Terapia honekin oinak biluzteaz gain masaje orokor bat ematen ikasi eta gorputz osoko errepresentazio erreflexua ezagutu dugu oinetako mapen bitartez.

Zein da Terapia horren helburua?

Helburua edo ikastaroaren bitartez lortu nahi duguna ez da gaixotasun larriak osatzen ikastea, baizik eta gure eguneroko bizitzan suertatzen diren arazo txikiei aurre egiten laguntzea: tentsio muskularrak, buruko minak, digestio txarrak, katarroak... Horretarako, min puntuak aurkitzen ikasi behar da eta puntu bakoitzak zein organori eragiten dion jabetu. Min ematen duten puntuek dagokien organoaren disfuntzio edo arazoren bat dagoela adierazten digute (kasu askotan, oinetako azalak ere adierazten digu zerbait). Kontutan izan behar dugu gorputza bat dela eta gure organoek emozioekin bat egiten dutela; adibidez, gibela haserrearekin lotu dezakegu: norbait haserre bizi denean, gibelean energia pilaketa bat izan dezakeela esan genezake. Zuk energia hori berritzen baduzu, haserrea gutxitzea lor dezakezu. Estimulatzeko edo erlaxatzeko eman dezakegu masajea. Hori guztia jakin ondoren, masajeak ematea besterik ez zaigu gelditzen.

Nork jaso dezake terapia hori?

Edonork jaso dezake: haurrek, nagusiek, gaixo daudenek eta baita osasuntsu dagoenak ere. Gure gorputza eta organoak egoera ezin hobean jarri, tentsioak askatu eta toxinak botatzeko modu azkar eta eraginkorra baitugu. Hori bai, kontutan izan behar dugu noiz ez den gomendagarria horrelako terapia bat jasotzea: arriskua duten haurdunaldietan, tromboflebitis edo flebitis agudoetan, ebakuntza larrien ostean, sukarra daukagunean …

Nolako ezaugarriak izan behar ditu erreflexoterapeutak?

Oso lagungarri izaten da aldez aurretiko jarrera, hau da, pentsaera positiboa izatea, erabateko dedikazioa eta, batez ere, maitasuna ematea. Ezin dugu ahaztu gizakiaren oreka fisikoa eta psikikoa lortzeko lanean ari garela.

Nolakoa izan da taldearen erantzuna?

Astean bi egunetan etortzen dira: astelehen eta asteazkenetan, hiruretatik bostetara. Egin ditugun saioetan, teoria apur bat eman eta bukaeran azaldu dugun hori praktikan jartzen ahalegindu gara. Terapia honen nondik norakoak azaldu ditugu: nondik datorren, zein den helburua, nola hasten den masaje bat ematen… Elkarrekintzaren bitartez, pixkanaka-pixkanaka ikasten joan dira elkarri masajea eman eta puntuak bilatuz.

K107 M24:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/06/11 00:51 Página 17

XXVI. OKELAR BERTSOPAPER SARIKETA

4.853 BUELTAN

Doinua: Hamarreko handia
Egilea: Beñat Urkiza Sesma

1
Etxetik kanpo bizitzeak ta
hiri baten murgiltzeak
ekintzei soilik so egitean
gauza anitz posibleak
zinema, kontzertu ta dendetan
distraitu gure uneak
gaur egun dena mugitzen dute
nahi guztien burutzeak
kristoren zirrara sortzen digu
betikora itzultzeak.

2
Ostirala ta arratsaldea
ez dago ezer egiteko
agian, akaso zapatuan
parranda egin beharko
hori ere gure aurka dugu
horrela ezin delako
nahiz eta hasarreak apaldu
gu ez gaude maiz suerteko
honetaz gain badira herrian
hainbat gauza esateko.

3
Mutrikun gazteentzat denbora
oso poliki pasatzen
denbora gehiegi lokaletan
ta ez dira ateratzen
kaleetan ikusten dutena
ez zaielako gustatzen
herriaren etxera joan beharko
ideia onak eskatzen
baina ez ahaztu gure botoa
zuentzat dela paratzen...

4
Proiektu asko hasi dira ta
asko ez dira burutzen
dike, antzoki, bariante hainbat
ideia ona omen zen
herriko zaharrak ere hor daude
ahal dutena aguantatzen
betiere gazteak jomugan
hauentzat beti pentsatzen
gure etorkizuna dira ta
ez du ezertxok ertetzen.

K107 M24:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/06/11 00:51 Página 18

NESKAK, PLAZARA!

Mutrikun Herri Kirolak aipatzen ditugunean, Sokatira taldea etortzen zaigu burura. Bertan dauden mutilek, sokatiran egiteaz gain, beste hainbat ekintza egiten dituzte. Oraingoan, Mutrikuko neskak bildu zaizkie taldera, laukote eder bat, hain zuzen ere. Ilusioz eta gogoz ekin diote, eta nahiz eta lehiaketetan parte hartzea oraingoz urruti ikusi, dagoeneko erakustaldietan hasita daude. Laukote horren helburua Herri Kirolei eta Euskal Kulturari bultzada ematea da. Hauexek ditugu: Iratxe Pagoaga (Errotaberri), Marije Ituarte (Isasi), Idoia Basterretxea (Txordo) eta Nerea Arrizabalaga (Txikiñe).

Nolatan hasi zineten Herri kiroletan? Zerk bultzatu zintuzten?

Nik neuk beti izan dut Herri Kiroletako giroa etxean, lehen ere ibilia naiz, eta, egia esan, auzoan bertan edo etxe ondoan Herri Kiroletako gunea izanda, bertara gerturatzea ezinbestekoa izan da —dio Marijek—. Besteok ere izan dugu aurrez nolabaiteko harremana euskal kirolarekin, izan ere, bizi garen auzoko jaietan (bai San Jeronimo auzoan eta baita Kalbaixon ere) urtero egiten ditugu herri kirolak, eta trontzan egitea ere egokitu izan zaigu bertan, baita kaskara-batzea edo sokan tiratzea ere; beraz, esan genezake ez garela hutsetik hasitakoak. Laukote ederra bildu gara, ilusioz eta gogoz ekin diogularik aurtengo denboraldiari.

Zein da zuen helburua?

Gure helburua trontzan egitea da, baina oraingoz txapelketetara joateko inolako loturarik gabe. Entrenamenduetara joaten gara, trontza dantzan jarri eta gustura aritzen gara giro politean, bide batez, kirola egiten dugu, horixe da-eta gure nahia —dio Iratxek—. Eta Kirola egiteaz gain, gure helburua Herri kirolei bultzadatxoa ematea ere bada, nolabait indartuz eta mantenduz. Geurea dugun eta maite dugun kulturari eutsi nahi diogu: Euskal Kirola bai, baina baita Euskal dantzak, herriko kantu zaharrak... Azken batean, lehen esan dugun bezala, helburua kirola egitea izanik ere, aldi berean geureak ditugun eta sentitzen ditugun Herri Kirolak sustatu nahi ditugu —Idoiak—. Epe luzera, nork daki agian lehiaketetan parte hartzeko moduan aurkitu-

kirik
gozotegia
tel. 943 107 288
MUTRIKU

KIRIK GOZOTEGIA,
ATENDITU EZIN DUGUNEZ
TRASPASOAN (edo ALOKAIRUAN)
EMAN NAHI DUGU.

Harremanetarako:
traspasotienda2011@hotmail.com
edo
zuzenean
KIRIK GOZOTEGIAN
galdetu.

K107 M24:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/06/11 00:51 Página 19

ko garen.

Zeintzuk ekintza egiten dituzue?
Printzipioz, trontzan egiteko bildu ginen, eta horretan aritzen gara. Denborarekin eta praktikarekin teknika hobetzea da gure nahia, baina oraingoz: jardun eta jardun, horixe da egiten duguna. Oso polita izango litzateke sokan ere jardutea, horretarako, ordea, zortzikote bat beharko genuke. Ezinezkoa ez bada ere, zaila ikusten dugu taldea ateratzea. Aukeran, mutilekin batera talde mistoan aritzea daukagu. Bestalde, dagoeneko hasi gara erakustaldietan parte hartzen, lehena Ibañarrietako jaietan egin genuen, eta, azkena, Ibilaldian, Ondarroan.

Marije, zuk Trontzan bakarrik ez, ezta?
Bueno, nire asmoa trontzan egitea da, baina Mutrikuko Herri Kirolak taldeak egin dituen erakustaldietan aurkezle lana egitea ere egokitu izan zait. Azkenekoz, Ibilaldian izan ginen, eta giro ezin hobean gustura egin nuen aurkezle-lana. Horrez gain, Euskal Herri mailan gure kirolei bultzada eman nahian, bileretan ere parte hartzen dut.

Nola egiten dituzue entrenamenduak?
Lehendabizi aipatu behar dugu era-erara daukagula sokatirako lokala, hau da, etxetik gertu eta ordutegi zabalarekin, eta guk geuk jartzen ditugula entrenatzeko egunak eta orduak. Ostiraletan, arratsaldeko zazpietan, normalean behintzat, laurok elkartzen gara; astean zehar, ordea, bakoitza ahal duenean gerturatzen da lokalera. Iratxe eta biok asteazkenetan zortzietan bildu izan gara —dio Nereak—. Eta orain momentuan astelehenetan ere biltzekoak gara, beraz, astean hiru bat egunetan entrenatzeko asmoa daukagu. Horrez gain, bakoitzak bere aldetik ahal duena egiten du gorputza mantentzeko. Bertan, bizikletan pixka bat egin berotzeko, korrika eta, bereziki, trontzan egiten saiatzen gara; eginez ikasten baita, hori dio behintzat gure gidari den Pedro Alkorta "Doistu"k. Bera trontzalari ohia da, eta badauka zer irakatsi.

Gizonezkoen kirola dela esango zenukete?
Gure nahia neskak ere plaza ateratzea da. Lehen, nesken taldea egon zenean, denetatik egiten genuen. Ez da kontua gizonezkoena izan edo emakumezkoena, kontua da Herri Kirolak mantentzea.

Nola hartu zaituztete taldean?
Esan beharra daukagu eskuzabalik hartu gaituztela Mutrikuko sokatira taldeko partaldeek. Hasiera batean, hastekoak ginela esan genuenean, demostratu egin behar izan genuen benetan ari ginela. Denboraren poderioz eta batzuen asistentzia ikusita, erakutsi da benetan ari ginela. Behin hasi ondoren, bene-benetan eskertzen dugu taldekoek emandako aholkuak eta laguntza.

Zein da herri kirolen egoera orain momentuan?
Sokatiran orain momentuan sei talde besterik ez dira aurkeztu lur gaineko txapelketetara, eta nesken taldean bakar bat ere ez. Datu horiek ikustea besterik ez daukagu herri kirolak momentuan jasaten duen egoeraz jabetzeko. Gipuzkoan, Mutrikuko taldea besterik ez dago, beste guztiak Bizkaikoak dira. Eta badirudi gure arbasoen ondarea den guzti hori ahazten eta galtzen ari garela, eta guk horrexi heldu nahi diogu.

Nola ikusten duzue etorkizuna?
Oraingoz, ilusioz ari gara eta etorkizunean hobetzen joateko asmoz. Nik —Marijek— ez dut etorkizunera begiratzen, momentuan momentukoa: taldea sortu dugu eta martxan jarri gara, horrekin pozik nago.

Animatuko al da jendea?
Guk jendea animatzea nahi dugu, jakina, eta neskak taldean gehitzea. Ahoz aho ahalegindu gara inguruan ditugun neska kirolari eta ez hain kirolariak animatzen eta tentatzen, oraingoz, ordea, ez dugu inor inguratzerik lortu. Esan beharra daukagu edonork egin dezakeela horrelako kirolen bat, gogoa eta ilusioa baino ez direla behar; beraz, animatu!

K107 M24:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/06/11 00:52 Página 20

ZORIONAGURRAK ZORIONAGURRAK ZORIONAGURRAK

NAGORE ETA JOANA
Zorionak izako dantzariei, ekainak 26 eta 29an urteak betetzen dituztelako. Zuen familiaren partez, batez ere Nahia eta Ekaitzen partez.

LARRAITZ
Zorionak Poxpolin Mari Sorgin! matxo haundi bat etxeko guztion partez.

DUNA
Bi muxu Mutrikutik.

MIREN
9 muxu 25ean Garik, Urkok eta...

JABITO
Uztailaren 11n zelebratu biharkoiau 65tak. Zorionak.

JOXEMARI
Uztailaren 5ean 66 bedeinkazio zoriontsu.

ENAITZ
Zorionak gure etxeko trapezistari 27an 3 urte beteko duelako Mila muxu etxeko danon partez. Pastelak zeure kontura. Amona, Ibai eta Eber.

OSKITZ
Gure etxeko kapitaina handitu zaigu. 8 muxu handi atxona amona, osaba, izeko, Enaitz eta Eberren partez. Zorionak ekainaren 23an. Lehenengo txokolatadia eta gero San Juan suak... opariak baita ere. Iraide, aita eta amak.

NAROA
Gure etxeko sorginari zorionak ekainaren 4ean saspi urte egiten dituelako eta muxu handi bat Ane, Amatxo eta Aitatxoren partez.

GOTZON
urte bat gehiago, baina txapel bat gehiago. Jarraitu gogor, gora herri kirolak! Zorionak

DORLETA
Zorionak eta besarkada handi bat etxekuen partez, batez ere Arantzan partez. Ondo-ondo pasa zure eguna.

NARKIS
Zorionak laurogeita hirugarrenean. Eutsi goiari!

IXONE
Zorionak eta matxo potolo bi etxeko printzesarentzat, Uztailaren 14an, bi urtetxo egin dituzulako. Izeko Begoñarentzat ere Zorionak!

PANADERIA POTERO OKINDEGIA
GREGORIO AZKUE
ETXEKO TEL. 943 60 43 17
DENDAKO TEL. 943 60 36 43
OKINDEGIKO TEL. 943 60 45 12

AZKENETXE jatetxea

Zartagineko, razioak, eguneko eta asteburuko menuak, karta, ospakizunak (ezkontzak, famili-bazkariak, enpresa-bazkariak...)
KANPOKO TERRAZA
HAUR PARKEA · BARNEKO TERRAZA
Kalbario gaina - Mutriku - Tel.: 943603005 - 628195120 - 628194996

K107 M24:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/06/11 00:52 Página 21

Duela 40 urte, **Luken Goenaga Elezgarai** Lehenengo Jaunartzean.

Ezkerretik eskubira: Luz Esther Ruiz, Luken Goenga, Irene Ruiz, Imanol Goenaga, Bittor Ruiz eta azpian, Belen Ruiz.

IÑIGOBELEN
konde 3 - tfnoa. 943603701
argazki lanak
erretoke digitala
diseinu grafikoa
fotokopiak zuribeltzean/koloretan
euskal preso eta iheslariak etxera

ANSORREGI
Oinetakoak
Erdiko kale, 9 - 943 60 33 42

K107 M24:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/06/11 00:52 Página 22

ZINE FORUM

MOTZ-MOTZIAN
film laburren lehiaketa

ekainak 19, domeka, 19:00
film laburren emanaldia

ekainak 24, barixakua, 20:00
lehiaketaren sari banaketa

ZAINTZAKO BOTIKAK

EKAINA.....

17tik 19ra Hiart Burgoa (zapatu goizean, Lon)
20tik 23ra Javier Obsagabia
24tik 26ra Lon Apraiz
27tik 30era Hiart Burgoa

UZTAILA.....

1etik 3ra Amaia Zalduegi (zapatu goizean, Javier)
4tik 7ra Lon Apraiz
8tik 10era Javier Obsagabia
11tik 14ra Amaia Zalduegi
15etik 17ra Hiart Burgoa (zapatu goizean, Lon)
18tik 21era Javier Obsagabia

EKAINA eta UZTAILA

ekainak 17, barixakua
Anna Valentina Trio taldearen kontzertua (Jazz, Swing...)
22:30etan Zaldei Plazan

ekainak 23, San Juan bezpera
SAN JUAN SUA Barunerdin

ekainak 24, barixakua
V.O.S. 4tet (jazz, funk)
22:30etan Zaldei Plazan

ekainak 25, zapatua
MOTORRA kale ikuskizuna
19:00etan Goiko Plazan

uztailak 2, zapatua
MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA
22:00etan Zaldei plazan

uztailak 9, zapatua
KALEAN KANTUZ
12:30etan Goiko plazan elkartu
13:15ean Bereko plazan jamaiku
14:00etan Abeukaleran amaitu

TXISTU ALARDEA
22:00etan Zaldei plazan

uztailak 15, barixakua
DEBEKATUTA DAGO DROITZEA
Dokumentalaren emanaldia; ondoren, kontzerhua
Saturnarenen, 22:30etan
Antolatzaileak: Zine Forum, MRK eta Bertso Eskola

uztailak 16, zapatua
AKORDEOI ALARDEA
23:00etan Txurruka plazan

uztailaren 21etik 25era
MALEN JAIAK

MENDI IRTEERAK

EKAINAK 25, zapatua
Dina Mairol mendiz mendi (gaueko martxa)

UZTAILAK 1, 2 eta 3
Laungo mendiak:
Maraña-Pico de la Cruz-Maraña
Liegne-Yoxpas-Liegne

UZTAILAK 16, zapatua
Elbar-Murliku mendiz mendi (gaueko martxa)

IRAILAK 11, domeka
Opakua-Bilgarra-Mandoi

UDAKO IKASTAROAK 2011

Matrikula zabalik

UDAKO IKASTAROAK 2011
MATRIKULA ZABALIK

Euskara ikasteko bide zuzena

2011ko UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

2. DEIALDIA PRESTATZEKO IKASTAROA
3. MAILA eta EGA

Uztaila – Iraila

Ekainaren 27tik uztailaren 22ra
(3 ordu egunean)

Irailaren 2tik 16ra
(2 ordu egunean)

PREZIOA
115 euro
Ikasle eta langabetuentzako prezioa: 73 euro

MUTRIKUKO
UDAL EUSKALTEGIA

Luardo Etxea, Sabanika aldapa 4
20830 **MUTRIKU** • Tel.: 943 60 30 94
eusk.mutriku@udal.gipuzkoa.net

UDAL EUSKALTEGIAK

DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA

Nafarroa Enparantza 2
20870 **ELGOIBAR** • Tel./Faxa: 943 74 27 31
elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net

Luardo Etxea, Sabanika aldapa 4
20830 **MUTRIKU** • Tel.: 943 60 30 94
eusk.mutriku@udal.gipuzkoa.net

Ifar-kalea 12
20820 **DEBA** • Tel.: 943 19 22 36
debabe.deba@telefonica.net

UDAL EUSKALTEGIAK

EUSKARAREN IRAKASKUNTZARAKO ENTITATE OFIZIALA

DEBABE UDAL EUSKALTEGIRAKO LAN - POLTSA

Debabe Udal Euskaltegiak lan-poltsa osatu nahi du meritu-lehiaketa bidez.

Oinarriak helbide hauetan aurki daitezke:
www.elgoibar.org
www.mutriku.net
www.deba.net
www.udaleuskaltegiak.net
www.ikasbil.net

K107 M24:kalaputxi aldizkaria.qxd 14/06/11 00:52 Página 24

YURRITA
GASTRONOMIKA
1867tik

Gastronomia:
gure pasioa 1867tik